

Osoko bilkura

Bilbon, 2013ko otsailaren 22an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, euskaltzainburuordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Goenaga, Patxi
Haritschelhar, Jean,
Iñigo, Andres,
Lakarra, Joseba,
Lizundia, Jose Luis,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Salaberri, Patxi,
Sarasola, Ibon,
Toledo, Ana,
Torrealdai, Joan Mari eta
Uribarren, Patxi

Erramun Osa, idazkariordea, Joseba
Zabaleta, kudeatzailea, Alfontso Mujika,
euskaltzain urgazlea, Jon Artza Euskaltzaindiko
Argitalpen zerbitziburua eta Aritz Abaroa, Ahozko Tradizioko

Hizkeren Corpora egitasmoaren teknikaria, zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Irazu, Jose «B. Atxaga», ahala A. Urrutiari; Zabaleta, Patxi, ahala A. Iñigori; Zalbide, Mikel, ahala A. Urrutiari.

Batzarra goizeko 10:00etan hasi da Euskaltzaindiaren Bilboko Egoitzan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Agurra eta hasierako oharrak: Euskaltzainburuak, bilduak agurtu ondoren, etorritakoen zerrenda irakurri eta jasoriko ahalak adierazi ditu. Ondoren, batzarraren erdian, 11:30ean, etena izango dela oroitarazi du, Akademiaren Egoitzaren beheko solairuko aretoan Agurtzane Azpeitiaren *Koldo Mitxelena*ren *zinema- eta liburu-kritiketako diskurtso estrategiak: enuntziatu parentetikoak* (IKER, 29) liburuaren aurkezpena egiteko, Euskaltzaindiaren eta Mondragon Unibertsitatearen arteko lankidetzan argitaratua.

1. Osoko bilkurako (2013-01-25) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz. Helduriko oharrak seinalatu ditu E. Osa idazkariordeak. Horiek eta beste zuzenketa puntual batzuk zuzendu ondoren, aurreko batzarraren akta ontzat eman da.

2. Exonomastika

2.1. Astronomia (III): izarren eta konstelazioen izenak onartu, hala erabakiko balitz

Exonomastika batzordearen buru den J. L. Lizundiak hitza A. Mujikari eman dio. Azalpen idatziak euskaltzainen artean banatu ondoren, jasoriko oharrei erantzun die A. Mujikak. J. Haritschelharrek latinezko formen alde egin du, eta *Arcturus* eta *Sirius* gelditu dira. P. Goenaga eta X. Videgainen oharrak ere kontuan hartu dira, eta, latinezko jatorrizko grafiaz idatziriko berbetan, lehendik onarturiko irizpide bera erabili dela gogorarazi da. Horrelako hitzetan, Euskaltzaindian jada euskal ahoskera zaindurako erabakia gogoratzeko oharra sartuko da. Edonola ere, latin alfabetorako transkripzioaren taula Gidor

Bilbaori pasatuko zaio, berorrek berrikus dezan.

2.2. Astronomia (IV): asteroideen eta nebulosen izenak aurkeztu

J. L. Lizundiak hitza berriz ere A. Mujikari pasatu dio. Beronek azaldu du asteroide eta nebulosa handien izenak besterik ez direla aurkezten, hots, nagusiak. Izenak itzultzerakoan, Exonomastika batzordea, Euskaltzaindiak jada onartua daukan mitologia klasikoaz baliatu dela gogorarazi du, bai eta beste hizkuntza nagusietako irizpideez ere, batez ere izen batzuk euskarara itzultzerakoan.

J. L. Lizundiak oharrak martxoaren 15erako bidali behar direla gogorarazi du. Ondoren, Exonomastikan daukan buru-kargua uzten duela adierazi du.

3. Euskera agerkaria hobetzeko inkesta aurkeztu

Euskaltzainburuak, aurkezpenean, Euskaltzaindiak *Euskera* agerkariarekin azken urtetan egin den ibilbidea gogora ekarri du. Inguruabar horretan, agerkaria hobetzen jarraitzeko, galdetegi bat prestatu da. Gaur inkesta horren emaitzen berri eman eta zer-nolako aldaketak egin daitezkeen azalduko dira. Horretarako, hitza Jon Artzari, Argitalpen zerbitzuburuari eman dio.

J. Artzak, bilduak agurtu ondoan, inkestan jasoriko erantzunak azaldu ditu. Oro har, erantzun gutxi jaso direla esan du, 21 guztira. Inkesta betetzeko epea otsailaren 28an bukatzen dela gogorarazi du eta erantzun gehiagoren beharraz mintzatu da. Esan duenez, hau ez da azterketa zientifiko bat, baliabide informatikoa erabiliz, egin

den hurbilketa bat baizik. Horrela, jasotako iritziak joera batzuk adierazten dituztela argudiatu du. Galderak, edukiei, euskarriei, prezioei eta bilatzaileari buruzkoak izan dira. Behin betiko emaitzak *Euskera* agerkariaren idazketa batzordean aurkeztuko badira ere, J. Artzak behin-behineko emaitza batzuk grafikoen bidez erakutsi ditu pantailan.

E. Osak hitza eskatu du eta ondorioei buruz mintzatu da. Erantzun dutenen iritzi aldizkarian kendu behar diren atalen artean hitzarmenen testuak aipatu izan dira, eta azken aldi horiek laburtzeko ahalegina ere egin da, hitzarmenekin zer lortu nahi den kontuan izanda. Antzeko beste aldizkari batzuk ere aztertu beharko liratekeela gaineratu du, hortik ideiak atera eta Euskaltzaindikoa hobetzeko. A. Urrutiak azaldu duenez, *Euskera* euskarri informatikoan argitaratzeko ahalbidea ere aztertzen hasi da. Era berean, aurrerantzean paperezko edizioak pixkanaka urritzearen alde egin du euskaltzainburuak. M. L. Oñederrak ere argitalpen digitalen alde hitz egin du. Nolanahi ere, paperezko inprimaketa ere egin beharko litzatekeela uste du, hala nahi dutenen nahia bideratzeko.

4. Ahozko Tradizioko Hizkeren Corpora egitasmoak emanikoa aurkeztu

A. Arejita euskaltzainak aurkeztu ditu proiektu horren hasiera eta aurrerabidea. Aurkezpenean, 2008ko azaroan proiektu horretan teknikari gisa lanean hasi zen Aritz Abaroaren laguntza izan du. Ondoren, lan horretan erabiliriko metodologia ere azaldu du. Lana, hurbiltasunagatik, Bizkaian egin da batez ere. Material horiek transkribatu, ordenatu eta ustiatzeko bideak ere azaldu dira. A. Arejitak gogorazi duenez, egitasmoa 2007ko apirilean aurkeztu zen Etxalarko Barne Jardunaldietan eta harrezkero beste zenbait lekutan ere erakutsi eta azaldu izan da. Azkenean, ekonomia krisia dela eta, egitasmoa geroratzea erabaki da, egoera hobetu arte behintzat. Egitasmoak emanikoaren transferentzia Azkue bibliotekara iraganarazi da, hots, dokumentuak, multimedia materialak eta Ahozko Ondare Bilduma, bertan artxibatu eta gordetzeko.

Era berean, egitasmoa burutzen izandako laguntzaileen zerrenda ere aipatu du. Hasieran xedetzat pentsaturiko helburuei dagokienez, horiek zein neurritan bete diren erakusteko, emaitzak honako hauek izan dira: 60 grabazio baino gehiago egin dira. Materialen kudeaketari dagokionez, 1400 pasarteraino etiketatu dira jada. Bestetik, 500 pasarte transkribatu dira. Era berean, soinuak artxiboa ere sortu da, eta 50 herritan bilduriko 1400 pasartez osaturiko artxibo sailkatua ere prestatu da. Horrela, material kontsultagarria sortzea lortu da: ahozko ondare bilduma sortu eta osatu da.

Ahozko ondare bildumari dagokionez, atarikoa, audioak eta testuak bildu dira, guztira 41 herritan (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Iparraldea). Materialen mamiaren ideia emateko, Aramaioko pasarteetan transkripzioa entzun ahal izan da. Halere, lanak oraingoz bere mugak ditu eta A. Arejitak materialetan egon litezkeen akatsak oraindik jorrazteko daudela esan du.

X. Videgainek zorionak eman dizkio A. Abaroari, egindako lan onagatik. P. Uribarrenek ere txalotu du lana eta ahaleginak egitea eskatu du, lan hori gorderik gera ez dadin, lehenbailehen argitaraturik baizik. Euskaltzainburuak berak ere bere poza erakutsi du A. Abaroak egindako lan bikainagatik, eta aurrerantzean ere Euskaltzaindiak berarekin lanean segitzeko asmoa dagoela aurreratu du.

Eginiko lanari buruz, P. Goenagak webgunean jarriko ote den galdetu du. A. Urrutiak baietz erantzun dio. Lan horretan grabaturikoak zenbat ordu biltzen duen galderari, A. Abaroak erantzun du 200 ordu baino gehiago jaso direla.

Osoko batzarraren etena. Batzarraren hasieran Euskaltzainburuak iragarri bezala, 11:20 direnean Osoko batzarra eten egin da. Ondoren, euskaltzainak Akademiaren egoitzaren beheko solairuko Aretora jaitsi dira, Agurtzane Azpeitiaren doktorego-tesia, hots, *Koldo Mitxelena*ren *zinema-eta liburu-kritiketako diskurtso estrategikoak: enuntziatu parentetikoak* (IKER 29) liburuaren aurkezpena egiteko, Euskaltzaindiaren eta Mondragon Unibertsitatearen arteko lankidetzaren hitzarmenaren emaitza dena. Aurkezpena egin eta gero, Osoko batzarrak lanean segitu du.

5. Euskaltzain urgazleak –batzordekideei dagokienez– izendatu

Aurreko batzarrean erabaki zen bezala, euskaltzain urgazle izateko hautagaien zerrenda lankidetzaren denboraren arabera eratua eta adostua izan den aldetik, bera onartzeko bozketa multzo osoa kontuan hartuz egingo da.

J. L. Lizundiak kontrako oharra egin du, arautegiaren arabera, hautagaiak banan-banan izendatu behar direla argudiatuz. Nolanahi ere, dagoen adostasun zabalak kontuan hartuz eta, bereziki, hautatze-denbora laburtzeko, hautagai guztiak batera hautatzea erabaki zen aurreko Osoko Batzarrean. Beraz, J. L. Lizundiak bestela baderitzo, eta halaxe agertzea nahi badu, idatziz egitea daukala erantzun dio A. Urrutiak. Ondorioz, euskaltzain urgazleak onartzeko bozketa, multzo osoa kontuan hartuta egin da.

Bozketara eraman den zerrenda, ondoko hau da:

1. Aldekoa, Iñaki
2. Alkorta, Kaxildo

3. Amundarain, Iñaki
4. Etxebarria, Nagore.
5. Fernandez, Beatriz
6. Garzia, Juan.
7. Gurrutxaga, Antton.
8. Juaristi, Patxi
9. Luzuriaga, Gerardo.
10. Martinez de Madina, Elena
11. Mugurutza, Felix
12. Ormazabal, Manu
13. Osa, Erramun
14. Retolaza, Iratxe

Bozketako emaitzak honakoak izan dira: emaniko botoak 23. Horietatik, 21 boto baieztatuak, ezeztatu bat eta boto zuri bat egon da. Horiek horrela, aurkezturiko zerrenda onartu da eta hautagaiak euskaltzain urgazle izendatu dira.

6. XVIII. Barne Jardunaldiak, gidoia aurkeztu

Aurten Euskaltzaindiak bere XVIII. Barne Jardunaldiak egingo ditu Bilbon, egoitzan martxoaren 21 eta 22an. Zuzendaritzak jada bertarako programa eta materialak prestatzen dihardu. Hitza idazkariordeari eman dio euskaltzainburuak, horren antolaketaren nondik norakoak azal ditzan.

E. Osak Barne Jardunaldietarako ibilbidea gogoratu eta bertan aritzeko prozedura azaldu du xeheki. Horiek horrela, 2013-2016 aldian batzordeek, lantaldeek eta egitasmoek izango dituzten jarraibideak martxoaren 8an aurkeztu beharko dira, berandue- nez. Jarraibide guzti-guztiak aurkeztu ahal izango dira XVIII. Barne Jardunaldietan.

Era berean, aldirako batzordeetako eta lantaldeetako kideak ere izendatu behar direnez gero, proposamenak martxoaren hamabosterako eskatu dira. J. Lakarrak galdetu du ea batzorde berriak antola ote daitezkeen. Euskaltzainburuak azaldu dio orain- go kontua ez dela batzorde berriak sortzea, jada daudenak kide berriekin osatzea baizik.

J. L. Lizundiak arlo iraunkorreko Batzordeak zeintzuk diren argitzeko azalpenak eman ditu. Euskaltzainburuak eta idazkariak ere bestelako argibideak eskaini dituzte, batzorde suntsikor eta iraunkorrez.

Batzordeek gehienez eduki behar dituzten kideez J. Haritschelharrek galdera egin du. Hamabikoa da gehienezko kopurua, XVII. Barne Jardunaldietan erabakirikoaren arabera. A. Urrutiak gainerakoak aholkulari izenda daitezkeela adierazi du.

7. Euskaltzaindiaren batzordeen, lantaldeen, egitasmoen eta zerbitzuen 2013. urteko planak aurkeztu

Pantailan proiektatu dira batzordeek, lantaldeek eta zerbitzuek bidaliriko plan-gintzak. Nolanahi ere, batzorde, lantalde eta zerbitzu batzuetako 2013. urteko planek aldaketak izan ditzakete, XVIII. Barne Jardunaldietan erabakitzen denaren arabera. Ondorioz, XVIII. Barne Jardunaldietako txostenekin batera aztertzea komeni da. Halaxe egitea hobetsi du Osoko bilkurak.

8. Eskuarteak

8.1. Banatuko diren liburuak

Hona hemen gaur euskaltzainen artean banatuko direnak:

– Agurtzane Azpeitiaren *Koldo Mitxelenaren zinema- eta liburu-kritiketako diskurtso-estrategiak: enuntziatu parentetikoak* (Iker 29). Euskaltzaindiaren eta Mondragon Unibertsitatearen arteko lankidetzaren emaitza.

– *Ahozko Ondare Bilduma*. Ahozko Tradizioko Hizkeren Corpusa egitasmoak emanikoa.

8.2. Hitzarmenak

8.2.1. Elizbarrutietako apezpikuekiko hitzarmena. Bilboko, Donostiako eta Gasteizko Elizbarrutien eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaren hitzarmena izenpetu da, 2013ko otsailaren 7an. Mario Izeta Bilboko apezpikuak, Jose Ignacio Munnilla Donostiako apezpikuak, Miguel Azurmendi Gasteizko apezpikuak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak izenpetu dute hitzarmena.

Horren bitartez, Bilboko, Donostiako eta Gasteizko Elizbarrutiek 1900. urtera arteko Bataio, Ezkontza eta Heriotza liburuen aurkibideetan oinarriturik, Elizbarruti hauek Euskaltzaindiari jabetzan emango diote, euskarri informatikoan, liburuotan ageri diren deiturak biltzen dituen zerrenda. Euskaltzaindiak, arautze lana bukatzean, emaitzak biltzen dituen deitura arautuen datutegiaren kopia emango die Elizbarrutiei jabetzan, beren ikerketarako eta difusio lanetarako hartaz balia daitezten.

Lan horrek bi epe ukanen ditu: lehenbizikoan hiru Elizbarrutiek 1700. urtera arteko deituren erlazioak emango dizkiote Akademiari, beranduenik 2013ko uztailaren 31rako, deiturak arautu ditzan. Euskaltzaindiak, berriz, emaitzak biltzen dituen deitura arautuen datutegi bana emango die Elizbarrutiei 2014ko abenduaren 31rako. Behin lan hori amaitzean, bi aldeek ongi iritziz gero, 1700etik 1900era arteko deituren erlazioak ematea bideratuko da.

8.2.1. Euskaltzaindiaren eta UZEIren arteko lankidetzaren hitzarmena. 2013ko martxoaren 6an izenpetuko da Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean.

8.3. Aurkezpena

Martxoaren 6an, halaber, Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean Hiztegi Batua (2. itzulua) aurkeztuko da hedabideen aurrean. Egun horretatik aurrera Euskaltzaindiaren webgunean egongo da erabilgarri.

8.4. EITBko administrazio-kontseilurako Euskaltzaindiaren proposamena

EITBren Administrazio Kontseilua hautatzea dela eta, 5/1982ko Legearen 7. artikulua 2. puntuari men eginez, Euskaltzaindiak EITBren Administrazio Kontseilurako hautagaia proposa dezan Eusko Legebiltzarraren idatzia jaso da. Hortaz, Arautegiak eta Barne-erregelak ezarritako prozedura eta arauak betez, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak Eusko Legebiltzarrari Adolfo Arejita euskaltzaina eta Iker Sailburua proposatu dio EITBren Administrazio Kontseilurako. Hala onartuko balu, izendapen hori 2013ko otsailaren 28an egingo luke Eusko Legebiltzarrak.

Era berean, euskaltzainburuak J. L. Lizundiari eskerrak eman dizkio orain arte EITBn egindako lanagatik.

J. L. Lizundiak eskerrak eman ditu egin zaion esker-aipamenagatik. Bere garaian H. Knörrek bezala, berak ere EITBn egindako denboraren txostena aurkeztu nahiko lukeela adierazi du, bertan egon den artean egindako lorpenak azaltzeko.

8.5. Hurrengo bilkurak

Hona hemen:

- Martxoaren 21-22an Euskaltzaindiaren XVIII. Barne Jardunaldiak egingo dira Bilbon, egoitzan.
- Era berean, martxoaren 22an Osoko bilkura laburra egingo da Bilbon, berau ere egoitzan.

9. Azken ordukoak

9.1. Emile Larrearen istripuaz informazioa

Emile Larrek etxe aurreko mailetatik erori eta istripu aski larria ukan du. Ospitalean dago eta oraindik ez dago bisitak hartzeko moduan. Datozen asteetan eba-kuntza egingo diote.

9.2. Elixabete Perez Gaztelu euskaltzain urgazlearen ama hil dela jakinarazi da
Batzarrak bere doluminak bidaltzea erabaki du.

Eta besterik ez dela, Osoko bilkura amaitutzat eman da 13:40 direnean.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria